



ELGOIBAR  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

## **2023ko SAN BARTOLOME JAIETAKO HAUREN KARTEL LEHIAKETA-ELGOIBAR**

Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak lehiaketa antolatu du 2023ko San Bartolome Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko.

### **OINARRIAK**

**LEHENENGOA.**- Lehiaketa honetan 18 urtetik beherako elgoibartarrek har dezakete parte.

**BIGARRENA.**- Teknika librea izango da (argazkia, pintura, marrazkia, collagea, e.a.). Hala ere, ezin izango da erliebedun kartelik aurkeztu, ezta plastilinarekin edo zerrautsarekin egindakorik ere.

**HIRUGARRENA.**- Lanaren neurria librea izango da.

**LAUGARRENA.**- Ezinbestekoa izango da ondorengo testua agertzea:

### **“ELGOIBAR, SAN BARTOLOME JAIK 2023”**

**BOSGARRENA.**- Dirutan izango ez diren SEI sari banatuko dira.

**SEIGARRENA.**- Lanak Aita Agirre kulturagunean aurkeztu behar dira. Lanak aurkezteko epea **2023ko EKAINAREN 23an** bukatuko da, eguerdiko 13:00etan.

Aita Agirre kulturagunea  
Aita Agirre plaza, 3-1.ezk  
20870-Elgoibar

**ZAZPIGARRENA.**- Lanak egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira, atzeko aldean “leloa” eta egilearen adina jarrita. Honekin batera, kartazal itxi batean, parte-hartzailearen datu pertsonalak bidaliko dira, eta kartazalaren gainean lanaren “leloa” jarriko da, baita **egilearen jaiotze urtea** ere. Lan bakoitzeko egile bakarra onartuko da, hau da, pertsona bakarra agertuko da lanaren egile bezala.

**ZORTZIGARRENA.**- Saritu gabeko lanak, epaimahaiaren erabakia jakinarazi ondoren jaso ahal izango dira. Horretarako, HOGEITA HAMAR (30) EGUNEKO epea izango da. Lanak aipatutako epean jaso ezean, Udalak uste izango du egileak horiei uko egiten diela. Ondorioz, egileari inolako eskubiderik aitortu eta ordainik eman gabe, lan horiek egoki irizten dion moduan erabiliko ditu.

**BEDERATZIGARRENA.**- Saritutako lanak Udalaren esku geldituko dira. Udalak, halaber, inprimatzeko, argitaratzeko eta ezagutarazteko eskubidea izango du, baita gainerako eskubide guztiak ere.

**HAMARGARRENA.**- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Erabakia hartzen den egun berean jakingo da epaimahaia nork osatzen duen. Horretaz gain, epaimahaiak argituko ditu oinarri hauei buruz sor daitezken zalantzak.

**HAMAIKAGARRENA.**- Lehiaketara aurkezteko, goitik behera onartu behar dira lehiaketa arautzen duten oinarriak.

**Oharra:** Saridunek saria jasotzera etorri beharko dute, eta ezinezkoa bazaie, ordezkariaren batek jaso beharko du. Sari banaketara, ez bata, ez bestea bertaratzen ez badira, saria baliogabetu egingo da.